



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauriko Uriarte Sektorearen Plan Partzialaren hasierako onarpena

Basauriko Alkateak, 2023.eko abenduaren 28ko 4668/2023 zenbakiko Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zion Basauriko Uriarte Sektorearen Plan Partzialari. Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Hasierako onarpena ematea Jonathan Ruipérez Palacio jaunak (NAN **9208***) aurkeztutako Uriarte Sektorearen Plan Partzialari Gescoviviendas, S.L.ren izenean eta ordezkartzan jardunez (IFZ B95402533). Hasierako onarpen hori ingurumen-txosten estrategikotik ondorioztatzen denaren mende egongo da.

Bigarrena: Espedientea jendaurrean jartzeko epea irekitzea. Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, azken iragarkia argitaratu eta 20 eguneko epean dokumentua Hirigintza Sailean (udaletxeko 3. Solairuan) aztertu eta interesa duen edonork alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Era berean, espediente osoa interesdunen eskura egongo da udaletxeko egoitza elektronikoan <https://www.basauri.net>.

Hirugarrena: Gescoviviendas SL enpresari jakinaraztea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 147.1 e) artikuluan adierazitakoa ikusita, dagozkion iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratzearen ondoriozko gastuak jasanaraziko zaizkiola.

Laugarrena: Interesatuiei ebazpen honen edukia jakinaraztea.

Basaurin, 2023ko abenduaren 29an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren